Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

968

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 18koa, Ingurumen Sailburuordearena, Industrias Galycas SA-ri ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) alanbrea trefilatzeko instalazioetan jardun ahal dezan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 22an, Industrias Galycas SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) alanbrea trefilatzeko. Ondorengo agiri teknikoak erantsi zitzaizkion eskaerari:

– Oinarrizko proiektua: memoria eta planoak.

– Oinarrizko proiektua: eranskinak.

– Laburpen ez-teknikoa.

– A agiria. Isilpekoa.

– B agiria: 1254/1999 Errege Dekretuari dagokion gai arriskutsuen adierazpena.

– Hirigintza-txostena.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Industrias Galycas SA enpresak, besteak beste, jardueraarako 2003ko apirilaren 9ko baimena zuen burdinazko eta altzairuzko alanbrea trefilatzeko. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: Gasteizko Udal Uren (AMVISA) kolektorera isurtzeko baimena, jardueraarako baimenarekin batera emana; hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, Ingurumen Sailburuordetzak 2004ko urtarrilaren 22an emana eta 2006ko martxoaren 2an aldatua; hondakin geldoen ekoizleen inskripzioa, 2002ko urtarrilaren 15ekoa,;eta atmosferan kutsadura sor dezakeen jardueraren inskripzioa.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoak proiektua jendaurrean jartzeko izapidea agindu zezan. Zehazki, Vitoria-Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari egin zitzaien kontsulta.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

968

RESOLUCIÓN de 18 de abril de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la planta de trefilado de alambre promovida por Industrias Galycas, S.A., en el término municipal de Vitoria-Gasteiz (Álava).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 22 de diciembre de 2006 Industrias Galycas, S.A. solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de una autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de trefilado de alambre en el municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava). La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto básico: memoria y planos.

– Proyecto básico: anexos.

– Resumen no técnico.

– Documento A. Confidencial.

– Documento B. Declaración de sustancias peligrosas en relación al Real Decreto 1254/1999.

– Informe Urbanístico.

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Industrias Galycas, S.A. tenía, entre otras, licencia de actividad, de fecha 9 de abril de 2003 para el trefilado de alambre de hierro y acero. Asimismo, la empresa promotora disponía de las siguientes autorizaciones: autorización de vertido al colector de Aguas Municipales de Vitoria (AMVISA) emitida junto a la Licencia de Actividad, Autorización de Productor de Residuos Peligrosos emitida por Viceconsejería de Medioambiente con fecha de 22 de enero de 2004 y modificada el 2 de marzo de 2006, Inscripción como productor de residuos inertes con fecha de 15 de enero de 2002 e Inscripción como actividad potencialmente contaminadora de la atmósfera.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 30 de enero de 2007 solicita informe a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el órgano ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto, en concreto se consulta al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

2007ko martxoaren 2an ingurumen organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean Industrias Galycas SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2007ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Vitoria-Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko otsailaren 22an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Industrias Galycas SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2008ko martxoaren 7an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege

Con fecha 2 de marzo de 2007 el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 7 de noviembre de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por Resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Industrias Galycas, S.A., en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Álava, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 2 de diciembre de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública, se constata que no se ha presentado alegación alguna.

En aplicación de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 14 de enero de 2007 Informe del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 22 de febrero de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Industrias Galycas, S.A. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

El día 7 de marzo de 2008 se recibe comunicación del promotor en el que se formulan diversas consideraciones en relación con la propuesta de resolución de Autorización Ambiental Integrada.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enume-

hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten herri-administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Industrias Galycas SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; saneamendu-sare orokorrera isurketak egiteko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkionak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurrea hartzeari dagozkionak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena.

Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Industrias Galycas SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

rados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Industrias Galycas, S.A. tales autorizaciones se circunscriben a la de productor de residuos peligrosos y no peligrosos, vertidos a la red general de saneamiento y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal.

A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Industrias Galycas, S.A. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, incorporando, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y del Departamento de Sanidad de Gobierno Vasco.

Azkenik, instalazioak isur ditzakeen gai kutsagarrien gehienezko balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen erreferentziako agiri baten, zehazki, galdaketaren sektorerako 2006ko abuztuko BREF agiriaren (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics) edukia hartu da kontuan.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Industrias Galycas SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla Ebazpen hau lantzerakoan.

Organo hau da ingurumen-baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko otsailaren 18an emandako Ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 5/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido del Documento de referencia (BREF) de la Comisión Europea para el sector de la Fundición (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics), de fecha agosto de 2006.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Industrias Galycas, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, se ha cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación. En este sentido, debe tenerse en cuenta que por los servicios técnicos adscritos a este órgano se ha procedido al análisis de las consideraciones realizadas por el promotor en este trámite, habiéndose tenido en cuenta las mismas en la elaboración de la presente Resolución.

Considerando la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 18 de febrero de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Vitoria-Gasteizko udalerriko (Araba) Gamarrako Atea kaleko 48. zenbakian eta IFK: A - 48032734 duen Industrias Galycas SA enpresari ingurumene-baimen bateratua ematea, aipatutako helbideko alanbrea trefilatzeko instalaziorako, ebazpen honen bigarren ataleko baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Metalen eta plastikozko materialen azala prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean» izenekoan.

Industrias Galycas SA enpresak ondoren deskribatuko den jarduerarako eskatzen du ingurumene-baimen bateratua:

Instalazioa Arabako Vitoria-Gasteizko Gamarrako Atea kaleko 48. zenbakian dago.

Urteko ekoizpena 36.859 tonakoa da.

Prozesuaren deskribapena.

Bi motako energiak erabiltzen ditu jarduerak:

– Energia elektrikoa: energia elektrikoaren ekoizte-prozesu guztietan, argiterian eta bulegoko ekipoetan erabiltzen da. 9.456.154 KWh inguru kontsumitzen dira.

– Gas naturala: lurrun-galdararako erregai gisa erabiltzen da. Lurruna azal-tratamenduko bainuak berotzeko erabiltzen da gero. Urtean 2.590.632 KWh inguru kontsumitzen dira.

– Erregaiak: instalazioan bi erregai likido mota kontsumitzen dira:

1.– A gasolioa: orgatila jasotzaileetarako erregai gisa erabiltzen da. Urtean 23.233 litro kontsumitzen dira.

2.– C gasolioa: berogailurako erregai gisa erabiltzen da. Urtean 3.383 litro kontsumitzen dira.

Industrias Galycas SA enpresaren ekoizte-prozesuak eragiketa hauek hartzen ditu barne:

– Lehengaiak hartu eta biltegiratzea: lehengai gisa erabiliko diren alanbroi-bobinak kanpoan biltegiratzen dira hormigoizko zola gainean, eta ilaretan taldekatuta daude, lodieraren eta konposizio kimikoaren arabera.

– Desugerketa: desugertze-prozesuak bi azpiprozesu ditu:

a) Desugerketa: alanbroi-bobinak azido klorhidrikozko bainuetan murgilduz egiten da desugerketa.

RESUELVO:

Primero.– Conceder a la empresa Industrias Galycas, S.A., con domicilio social en la calle Portal de Gamarra n.º 48, del término municipal de Vitoria-Gasteiz (Álava) y CIF: A - 48032734, Autorización Ambiental Integrada para la planta de trefilado de alambre, en sus instalaciones ubicadas en la mencionada dirección, con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría «2.6 Instalaciones para el tratamiento de superficie de metales y materiales plásticos por procedimiento electrolítico o químico, cuando el volumen de las cubetas o de las líneas completas destinadas al tratamiento empleadas sea superior a 30 m^3.» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La actividad para la que Industrias Galycas, S.A. solicita la autorización ambiental integrada se describe a continuación:

La planta se encuentra ubicada en la calle Portal de Gamarra n.º 48 de la localidad alavesa de Vitoria-Gasteiz.

La producción anual asciende a 36.859 toneladas.

Descripción del proceso.

La actividad emplea tres tipos de energía:

– Energía eléctrica: la energía eléctrica es utilizada en la totalidad de los procesos de producción, en iluminación y en los equipos de oficina. Se consumen del orden de 9.456.154 KWh.

– Gas natural: se emplea como combustible para la caldera de vapor. El vapor es posteriormente utilizado para el calentamiento de los baños de tratamiento superficial. Se consume del orden de 2.590.632 KWh al año.

– Combustibles: en la planta se consumen dos tipos de combustibles líquidos:

1.– Gasóleo A: se emplea como combustible para las carretillas elevadoras. Se consumen 23.233 litros al año.

2.– Gasóleo C: se emplea como combustible para la calefacción. Se consumen 3.383 litros al año.

El proceso productivo de Industrias Galycas, S.A. consta de las siguientes operaciones:

– Recepción y almacenamiento de la materia prima: los rollos de alambrón que se van a emplear como materia prima, se almacenan en el exterior sobre suelo de hormigón, estando agrupados en filas en función de su grosor y de su composición química.

– Decapado: el proceso de decapado se compone de dos subprocesos:

a) Decapado: el decapado se realiza por inmersión de los rollos de alambrón en baños de ácido clorhí-

Desugerketarako bi upel ditu: lehena azido klorhidriko ahulekoa da, eta bigarren upelak azido klorhidrikozko bainu gogor bat du. Alanbroi-bobinek ezarritako hurrenkerari jarraitzen diote: lehen desugerketa ahula da, eta bigarrena, gogorra.

Desugerketaren ondoren, alanbroia presiozko dutxaz garbitzen da, eta garbiketa bikoitza egiten zaio, materialaren aitzinamendu-hurrenkeran kokatutako hiru upeletan murgilduz.

b) Estaldura: fosfatatzeko, borax- eta kare-upelak ditu. Sortuko duen azken produktuaren arabera, tratamendu ezberdina ematen zaio. Materialak dagokion tratamendua jaso ondoren, presiozko dutxaz garbitu eta azken ur-upelean murgiltzen da. Azkenik, alanbroiak boroztatzeko (borax-upelean murgilduta) edo kareztatzeko (kaltzio hidroxidozko upelean murgilduta) tratamendu bat hartzen du.

– Trefilaketa: trefilaketa gauzatzen da, diametro, konposizio kimiko eta ezaugarri mekaniko definituetatik abiatuz elkarren ondoko sekzio-murrizketen bidez sekzio zirkularreko alanbre bat lortzeko, aurrez desugertze-prozesuan azala prestatuta. Trefilaketa zenbait urratseko trefilagailuetan burutzen da. Ilara eta bobina urez eta airez hoztuta daude, sortutako beroa xahutu eta alanbrean gehiegizko tenperatura saihesteko, horrek eragin txarra izango bailuke prozesuan eta materialaren ezaugarri mekanikoetan.

Alanbre eta ilara arteko lubrifikazioa ilara-euskarrien kutxan jartzen diren trefilatzeko xaboien bidez lortzen da. Trefilatzeko xaboiak kaltzio, sodio edo estearato mistoak dira, zenbait gehigarri dituztenak, eta ezaugarri ezberdinak dituzte lubrifikazio-ahalmenari eta alanbreko azken hondakin motari dagokienez.

Trefilatzeko eragiketari jarraitutasuna emateko, bobina bat erresistentzia-topekako soldadura bidez bestearekin lotuz.

– Paketatzea: trefilaketa-bobina makinaren irteeran jasotzen da formatu ezberdinetako unitateetan, produktu bukatu motaren eta bezeroaren eskakizunen arabera.

Industrias Galycas SA enpresak isuri atmosferikoen 7 foku ditu, prozesu ezberdinen arabera sailkatuta:

– Lurrun-galdara: lurrun-galdararen erauzketa-fokua, azal-tratamenduko bainuak berotzeko erabilia.

– Desugerketa: sei foku ditu, honela banatuta:

1.– HCl-zko garbiketa-dorreko erauzketa.

2.– Borax-upeleko erauzketa.

drico. Dispone de dos cubas para el decapado, la primera de ellas de ácido clorhídrico débil, mientras que la segunda cuba contiene un baño fuerte de ácido clorhídrico. Los rollos de alambrón siguen el orden establecido, siendo el primer decapado débil y el segundo fuerte.

Posterior al decapado, el alambrón es sometido a un lavado por ducha a presión, y doble lavado por inmersión en las tres cubas situadas en el orden de avance del material.

b) Recubrimiento: dispone de cubas de fosfatado, borax y cal. Dependiendo del producto final al que vaya a dar lugar el tratamiento que se le da es diferente. Una vez el material ha recibido el correspondiente tratamiento es lavado en ducha a presión e inmersión en la última cuba de agua. Por último el alambrón recibe un tratamiento de boratado (por inmersión en la cuba de borax) o encalado (por inmersión en la cuba de hidróxido de calcio).

– Trefilado: se realiza el trefilado con objeto de obtener un alambre de sección circular mediante reducciones de secciones sucesivas a partir de alambrones de diámetro, composición química y propiedades mecánicas definidas, previa preparación de la superficie en el proceso de decapado. El trefilado se lleva a cabo en máquinas trefiladoras de varios pasos. La hilera y la bobina están refrigeradas por agua y aire para disipar el calor generado y evitar una elevación excesiva de la temperatura en el alambre que pudiera afectar negativamente al proceso y a las características mecánicas del material.

La lubricación entre alambre e hilera se obtiene mediante jabones de trefilar que se colocan en el cajetín de portahileras. Los jabones de trefilar son estearatos cálcicos, sódicos o mixtos con diversos aditivos, que presentan propiedades distintas en cuanto al poder de lubricación y al tipo de residuo final en el alambre.

Para dar continuidad a la operación de trefilado se empalma un rollo con otro mediante soldadura a tope de resistencia.

– Embalaje: el rollo de trefilado es recogido a la salida de la máquina en unidades de distintos formatos, según el tipo de producto terminado y los requerimientos del cliente.

Industrias Galycas, S.A. dispone de 7 focos de emisión a la atmósfera que se clasifican según los diferentes procesos:

– Caldera de vapor: foco de extracción de la caldera de vapor utilizada para calentar los baños de tratamiento superficial.

– Decapado: dispone de seis focos distribuidos de la siguiente forma:

1.– Extracción Torre de Lavado de HCl.

2.– Extracción cuba de borax.

3.– Zink-fosfatatzeko erauzketa (1. upela).

4.– Zink-fosfatatzeko erauzketa (2. upela).

5.– Kare-upeleko erauzketa.

6.– Desugerketa-pabiloiari dagokion baterako erauzketa.

Industrias Galycas SA enpresan isuri hauek egiten dira uretara:

– PV1 isurketa: isurketa AMVISA Ur Partzuergoaren kolektorera egiten da. Hiru fluxuz osatuta dago:

a) Komunetako ur beltzak.

b) Lur zatiaren hego-ekialdeko euri-urak.

c) Industriako hondakin-ur araztuak. Industria-urak fluxu hauez osatzen dira:

1.– Desugerketa-dutxako garbiketa.

2.– Desugerketa-instalazioaren eta araztegiaren arteko estoldetara doazen ur guztiak, eta balantzaren ondokoak, hots, euri-urak, produktu kimikoen balizko jarioak.

– PV2 isurketa: isurketa AMVISA Ur Partzuergoaren kolektorera egiten da. Bi fluxuz osatzen da:

a) Aldagela eta komunetako ur beltzak.

b) Lur zatiaren hego-mendebaldeko euri-urak.

– PV3 isurketa: isurketa AMVISA Ur Partzuergoaren kolektorera egiten da. Bi fluxuz osatzen da:

a) Bulego berrietako ur beltzak.

b) Lur zatiaren iparraldeko euri-urak.

Industrias Galycas SA enpresak aurkeztutako proiektuak, besteak beste, teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu: ISO 14.001 arauaren araberako ziurtagiria du; azal-tratamenduko instalazioan hustubideak ditu; kako-formako bastidoreak ditu arrasteak murriztu eta korrontearen eraginkortasuna areagotzeko; upelek presiozko aire bidezko irabiatze-sistema bat dute; termostatoak dituzte bainuetako tenperaturari eusteko; bainuen konposizioaren eguneroko analisia eta kontrola; arrastea murriztea, piezak bainuaren gainean bertan esekiz, tanta-jarioa desagertu arte; garbiketadorrea du desugerketa-upeletako isuriak murrizteko.

Bigarrena.– Industrias Galycas SA enpresak Vitoria-Gasteizko udalerrian alanbrea trefilatzeko instalazioa ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

3.– Extracción de fosfatado de zinc (cuba 1).

4.– Extracción de fosfatado de zinc (cuba 2).

5.– Extracción cuba de cal.

6.– Extracción conjunta correspondiente a la nave de decapado.

En Industrias Galycas, S.A. se generan las siguientes emisiones a las aguas:

– Vertido PV1: el vertido se realiza al colector del Consorcio de Aguas de AMVISA. Está compuesto de tres flujos:

a) Aguas fecales de aseos.

b) Aguas pluviales de la zona sureste de la parcela.

c) Aguas residuales industriales depuradas. Las aguas industriales se componen de los siguientes flujos:

1.– Lavado en ducha de decapado.

2.– Todas aquellas aguas que van a parar a las alcantarillas situadas en la zona entre la instalación de decapado y la depuradora, y las situadas junto a la balanza, es decir, aguas pluviales, posibles derrames de productos químicos.

– Vertido PV-2: el vertido se realiza al colector del Consorcio de Aguas de AMVISA. Está compuesto de dos flujos:

a) Aguas fecales de vestuarios y aseos.

b) Aguas pluviales de la zona suroeste de la parcela.

– Vertido PV-3: el vertido se realiza al colector del Consorcio de Aguas de AMVISA. Está compuesto de dos flujos:

a) Aguas fecales de las oficinas nuevas.

b) Aguas pluviales de la zona norte de la parcela.

El proyecto presentado por Industrias Galycas, S.A. incorpora entre otras las siguientes medidas que pueden considerarse Mejores Técnicas Disponibles (MTDs): dispone de la certificación de acuerdo a la norma ISO 14.001; dispone de sumideros en la instalación de tratamiento superficial; dispone de captación y aspiración en toda la línea de tratamiento superficial; dispone de bastidores en forma de ganchos para minimizar los arrastres y maximizar la eficiencia de la corriente; las cubas disponen de un sistema de agitación mediante aire a presión; disponen de termostatos para el mantenimiento de la temperatura en los baños; análisis y control diario de la composición de los baños; minimización del arrastre mediante la suspensión de las piezas sobre el propio baño hasta la desaparición del goteo; dispone de torre de lavado para minimizar las emisiones procedentes de las cubas de decapado.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la planta de trefilado de alambre, promovida por Industrias Galycas, S.A. en el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Industrias Galycas SA enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Industrias Galycas SA enpresak Vitoria-Gasteizko udalerrian duen instalazioa ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Industrias Galycas SA enpresak Vitoria-Gasteizko udalerrian duen instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

A) Industrias Galycas, S.A. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al responsable de las relaciones con la Administración.

B) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación por el promotor ante la Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

B.1.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

B.1.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

B.1.1.1.– Condiciones generales.

La planta de la que Industrias Galycas, S.A. dispone en el término municipal de Vitoria-Gasteiz se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión establecidos en esta Resolución.

Toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones. Podrán exceptuarse de esta norma general aquellas emisiones no confinadas cuya captación sea técnica y/o económicamente inviable o bien cuando se demuestre la escasa incidencia de las mismas.

Se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública. Las instalaciones de tratamiento de los efluentes gaseosos deberán ser explotadas y mantenidas de forma que hagan frente eficazmente a las variaciones debidas a la temperatura y composición de los efluentes. Asimismo se deberán reducir al mínimo la duración de los periodos de disfuncionamiento e indisponibilidad.

B.1.1.2.– Identificación de los focos. Catalogación.

La instalación que Industrias Galycas, S.A. dispone en el término municipal de Vitoria-Gasteiz cuenta con los siguientes focos, catalogados de acuerdo con la normativa vigente en materia de protección de la atmósfera:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	1000311-01	Garbiketa-dorrea Desugerketa	12	1,09	C	528068	4746341
2	1000311-02	Lurrun-galdara Desugerketa	9	0,45	C	528043	4746369
3	1000311-03	Borax-tratamenduko erauzketa Desugerketa	7.66	0,44	C	528052	4746368
4	1000311-04	Zink-fosfatatzeko erauzketa 1. desugerketako upela	7.66	0,33	C	528053	4746365

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
5	1000311-05	Zink-fosfatatzeko erauzketa 2. desugerketako upela	7.66	0,33	C	528055	4746363
6	1000311-06	Kare-tratamenduko erauzketa Desugerketa	7.66	0,44	C	528056	4746361
7	1000311-07	Baterako erauzketa (sabaia) Desugerketa	7.66	0,33	C	528055	4746356

N.º Foco	*Código de foco*	*Denominación foco de emisión*	*Altura (m)*	*Diámetro interior (m)*	*Catalogación*	*Coordenadas UTM*	
					Grupo	*X*	*Y*
1	*1000311-01*	*Torre de Lavado. Decapado*	*12*	*1,09*	*C*	*528068*	*4746341*
2	*1000311-02*	*Caldera de vapor. Decapado*	*9*	*0,45*	*C*	*528043*	*4746369*
3	*1000311-03*	*Extracción tratamiento con Bórax. Decapado*	*7.66*	*0,44*	*C*	*528052*	*4746368*
4	*1000311-04*	*Extracción de fosfatado de zinc. Cuba 1. Decapado*	*7.66*	*0,33*	*C*	*528053*	*4746365*
5	*1000311-05*	*Extracción de fosfatado de zinc. Cuba 2. Decapado*	*7.66*	*0,33*	*C*	*528055*	*4746363*
6	*1000311-06*	*Extracción tratamiento con cal. Decapado*	*7.66*	*0,44*	*C*	*528056*	*4746361*
7	*1000311-07*	*Extracción conjunta (techo). Decapado*	*7.66*	*0,33*	*C*	*528055*	*4746356*

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditu ko:

B.1.1.3.– Valores límite de emisión.

La planta se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los siguientes valores de emisión:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
2. fokua	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
3. fokua	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
4. fokua	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
5. fokua	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
6. fokua	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
7. fokua	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3

Focos	*Sustancias*	*Valores límite de emisión*
Foco n.º 1	*Ácido clorhídrico (HCl)*	*30 mg/Nm^3*
	Partículas totales	*30 mg/Nm^3*
Foco n.º 2	*Monóxido de carbono (CO)*	*500 ppm*
	Óxidos de nitrógeno (NO_x)	*300 ppm*
Foco n.º 3	*Partículas totales*	*30 mg/Nm^3*
Foco n.º 4	*Partículas totales*	*30 mg/Nm^3*

Focos	*Sustancias*	*Valores límite de emisión*
Foco n.º 5	*Partículas totales*	*30 mg/Nm³*
Foco n.º 6	*Partículas totales*	*150 mg/Nm³*
Foco n.º 7	*Partículas totales*	*30 mg/Nm³*

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

